

Barneko Informazio Sistemari (BiS) buruzko informazio-oharra

1. Administrazioa, erakundeak eta entitateak

Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen II. tituluan jasotako baldintzetan, arau-hausteei buruzko informazioa emateko eta informatzaileak babesteko barne-sistemaren –89/2023 Dekretuan arautua, ekainaren 13koan– jarduketa-esparruak honako **erakunde eta entitate** hauek hartzen ditu barnean:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Instituzionala; alegia, gaur egun dauden organismo autonomoak eta zuzenbide pribatuko ente publikoak, eta dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera eratzen direnak.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko ente instrumentalak, gaur egun dauden sozietate publikoak eta haien fundazio eta partzuergoak barne hartuta, bai eta dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera eratzen direnak ere.
- d) Euskal Sektore Publikoari buruzko 2022ko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 10. artikuluan arautzen diren administrazio-agintaritza independenteak eta agintaritza horietako bakoitzaren sorrera-legean arautzen direnak.

2. Informatzailea

Informatzailea edonor izan daiteke, baldin eta EAEko sektore publikoa osatzen duten erakundeetan ustez gertatzen diren arau-hauste astunen edo oso astunen gaineko informazioa badauka, erakunde horiekin duen lan-harremanaren edo harreman profesionalaren ondorioz:

Nota informativa Sistema Interno de Información (BiS)

1. Administración, organizaciones y entidades

En los términos contemplados en el Título II de la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco, el marco de actuación del Sistema interno de información de infracciones normativas y de protección de las personas informantes regulado en el Decreto 89/2023, de 13 de junio, comprende las siguientes **organizaciones y entidades**:

- a) La Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- b) La Administración Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi, integrada por los Organismos autónomos y Entes públicos de derecho privado actualmente existentes, así como los que se constituyan una vez inicie su vigencia el presente Decreto.
- c) Los entes instrumentales del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, abarcando tanto las sociedades públicas como sus fundaciones y consorcios, actualmente existentes, así como aquellos que se constituyan una vez inicie su vigencia el presente Decreto.
- d) Las autoridades administrativas independientes reguladas en el artículo 10 de la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco, y en su respectiva Ley de creación.

2. Persona informante

La **persona informante** puede ser cualquiera que fruto de su relación laboral o profesional con las organizaciones que conforman el Sector Público de la CAE tenga información sobre presuntas infracciones graves o muy graves dentro de estas organizaciones:

- a) Administrazio publikoko langileak (funtzionario-harremana nahiz lan-harremana dutenak, edo eduki aurreko egoeran daudenak –hautaketa-prozesuetako arau-hausteei buruzko informazioa bada–, edo lan-harremana zein estatutu-harremana amaitu dutenak).
- b) Besteren kontura lan egiten duten langileak.
- c) Langile autonomoak.
- d) Akziodunak edo entitate baten administrazio-, zuzendaritza- edo gainbegiratze-organoko kideak.
- e) Boluntarioak, bekadunak eta prestakuntza-aldian dauden langileak.
- f) EAEko sektore publikoko kontratistentzat, azpikontratistentzat eta hornitzaileentzat lan egiten duten pertsonak.

Informatzailea babesteko neurriak beste batzuei ere aplikatuko zaizkie, hain zuen ere, bere legezko ordezkari, lankideei, senideei, prozesuan parte hartzen dutenei eta berarekin lan-harremana duten pertsona juridikoei edo informatzaileak partaidetza nabarmena duen pertsona juridikoei. Horretarako, sistema honek [organismoa edo erakundea atxikita dagoen saileko sailburuari] jakinaraziko dio 15 egun balioduneko epea duela ezarritako babes-neurrien eta horiek errepika ez daitezen erabakitako barne-jarduketan berri emateko.

3. Pertsona errekeritua

Sistemaren arduradunak edo haren bulegoko edozein kidek, berezkoak dituzten ikerketa-zereginetan ari direla, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko **administrazio, organismo edo erakundeentzako titularrei edo arduradunei** errekerimendua eginez gero, horiek alaitasun lasterren eta ahalik eta prestutasun handienarekin erantzun beharko diote eskaerari, jasotzen dutenetik gehienaz ere zazpi egun balioduneko epean.

- a) Personal de la Administración Pública (relación funcionarial o laboral, o con carácter previo a tenerla -sobre infracciones procesos selectivos-, o con relación laboral estatutaria ya finalizada).
- b) Personas trabajadoras por cuenta ajena.
- c) Personas trabajadoras autónomas.
- d) Personas accionistas o que formen parte del órgano de administración, dirección o supervisión de una entidad.
- e) Personal voluntario, becario y trabajador en periodo de formación.
- f) Personas que trabajen para contratistas, subcontratistas y proveedores del sector público de la CAE.

Las medidas de protección a la persona informante se extienden a sus representantes legales, compañeros/as, familiares, asistentes en el proceso y personas jurídicas con las que mantenga relación laboral o en las que ostente participación significativa. Para ello, este Sistema informará al [Consejero o Consejera del Departamento al que esté adscrito el organismo o ente] concernido, que deberá informar en 15 días hábiles de las medidas de protección desplegadas y las actuaciones internas para evitar su reiteración.

3. Persona requerida

Las **personas titulares o responsables de las distintas administraciones, organismos o entes** del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi que sean requeridas por el o la Responsable del Sistema o por cualquier miembro de su oficina, en el desempeño de las labores de investigación que le son propias, deberán atender sus peticiones a la mayor brevedad y con la máxima diligencia, en el plazo máximo de siete días hábiles tras la recepción de la correspondiente solicitud.

Eskaera/komunikazio horiek **Tramitagune** bidez jasoko dituzte beti, eta horietara errekeritutako pertsonak soilik sartu beharko dira. Ezarritako epean erantzun beharko dituzte, Tramitagune bitartez.

Adierazitako epea igarota, eskaerak ez badu ondorioz izan eta ez bada behar bezala bete, sistemaren arduradunak idatzia bidaliko dio betebeharra konplitu ez duenaren nagusi hierarkikoari, eta, halakorik ez badu, kasuan kasuko organismoa edo entitatea atxikita dagoen saileko sailburu titularrari.

Komunikazio hori jaso ondoren, eskatutako informazioa emango zaio sistemaren arduradunari gehienez ere zazpi egun balioduneko epean, eta dagokion informazio-espedientea irekiko da, erantzukizunak behar bezala argitzeko, sailburuak erantzun behar izan badu. Barne-sistemaren arduradunari informazio-espedientea amaitu dela jakinaraziko zaio.

Ikerketen ondorioz, baliteke sistema honek Ministerio Fiskalari bidaltzea espedientea (baliteke ikerketa egin aurretik ere bidaltzea, baldin eta delitu-zantzurik badago) edo baliteke [organismoa edo erakundea atxikita dagoen saileko sailburuari] jakinaraztea hilabeteko epea daukala sistema honi egoera bideratzeko eta erantzukizunak argitzeko egindako jardueren berri emateko.

Horren jakinaren berri izango du sistema hau atxikita dagoen saileko sailburu titularrak.

Izapidetzearekin lotutako arazorik edo zalantzarik baduzu, jar zaitez gure sistemarekin harremanetan 116504 eta 116505 luzapenetara edo 945 016 504 eta 945 016 505 telefono zenbakietara deituz. Halaber, Tramitaguneri buruzko laguntza-eskuliburua eskuragarri dago.

Estas solicitudes/comunicaciones siempre se recibirán a través de **Tramitagune**, debiendo acceder a ellas únicamente la persona a la que se le solicitan y debiendo responder en el plazo establecido. La respuesta también deberá realizarse a través de Tramitagune.

Si superado el plazo señalado la referida solicitud no hubiera sido efectiva y adecuadamente cumplimentada, la persona Responsable del Sistema dirigirá escrito al superior jerárquico de la persona incumplidora y en caso de que no lo tuviere al Consejero o Consejera titular del Departamento al que el correspondiente organismo o entidad se encuentre adscrito.

Recibida tal comunicación, se procederá a facilitar al Responsable del Sistema en el plazo máximo de siete días hábiles la remisión de la información solicitada, así como a la incoación del oportuno expediente informativo para la precisa depuración de las correspondientes responsabilidades si hubiese tenido que responder el Consejero o Consejera. La conclusión de tal expediente informativo será notificada al Responsable del Sistema interno.

Del resultado de las investigaciones podrá resultar la remisión del expediente al Ministerio Fiscal por este Sistema (también puede producirse tal remisión antes de la investigación si ya hay indicios de delito) o comunicación al [Consejero o Consejera del Departamento al que esté adscrito el organismo o ente] involucrado, que en un mes deberá dar cuenta pormenorizada a este Sistema de las actuaciones realizadas para reconducir la situación y depurar responsabilidades.

De todo ello tendrá conocimiento el Consejero o Consejera titular del Departamento al que se adscribe este Sistema.

Si se tuviese algún problema o duda con la tramitación, se podrán resolver poniéndose en contacto con nuestro sistema llamando a las extensiones 116504 y 116505 o a los teléfonos 945016504 y 945016505. Asimismo, se podrá facilitar un manual de ayuda de Tramitagune.

ZABALDU EDO ARGITARATU AURREKO KONTSULTA

Barneko Informazio Sistemari buruzko informazioa zabaltu edo argitaratu nahi den guztietan, atariari erreferentzia egin behar zaio

(<https://bis.gardena.euskadi.eus/hasiera/>) eta argitalpenaren edukiari eta testuari buruzko kontsulta egin behar da. Horretarako, BiSen helbide elektronikora idatzi daiteke (info@bis.euskadi.eus), edo telefonoz deitu (945 016 504 edo 945 016 505).

CONSULTA PREVIA A LA DIFUSIÓN O PUBLICACIÓN

Siempre que se quiera difundir o publicar información sobre el BiS, se deberá hacer referencia al portal, cuya url es

(<https://bis.gardena.euskadi.eus/inicio/>), además de consultar el contenido y texto de la publicación. La consulta se podrá realizar a través del buzón de correo del BiS, info@bis.euskadi.eus, o llamando al 945016504 o 945016505.